

Bi urte igaro eta gero, telefonoz  
hots egin zion.



Lehengo esaldiaren antzekoak dituzu hauek:

- Bi urte igaro **ondoren**, telefonoz...
- Bi urte igaro **ostean**...
- Bi urte **geroago**...
- Bi urteren **buruan**...

\*Bi urte eta gero, telefonoz hots egin zion.



Ekaitza igaro **eta gero**, barealdia izaten da.

Ekaitza igaro **ondoren**, barealdia izaten da.

Ekaitzaren **ostean**, barealdia izaten da.

Ekaitzaren **ondoren**, barealdia izaten da.

\*Ekaitza **eta gero**, barealdia izaten da.



Ehun urte igaro ondoren/ostean

Ehun urte igaro eta gero

Ehun urteren buruan

Handik ehun urtera

\*Ehun urte eta gero



Hurbil duzu parkea: zubia pasatu eta gero.

Hurbil duzu parkea: zubia pasatu ondoren.

Hurbil duzu parkea: zubia pasatu eta berehala.

\*... zubia eta gero.

E U S K E R A

Euskaltzaindia: Ien eta gero  
Euskaltzaindia: Ien eta gero  
Euskaltzaindia: Ien eta gero



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

HIZTEGI BATUA

2000, 2  
45 liburuki  
9180

Ikus bedi **gero** sarrera *Hiztegi batuan*

**gero**

**eta gero** (partizipioaren ondotik erabiltzen da, ez izenaren ondotik: *bilera bukatu eta gero etxera abiatu ziren; \*bilera eta gero e. bileraren ondoren*)



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

